## ORDEZKARITZA EGIAZTATZEA

1) Noiz aurkeztu

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. Artikulua betez, jarduteko gaitasuna duten pertsonek beste pertsona batzuen ordezkari gisa jardun ahal izango dute administrazio publikoen aurrean.

Ordezkaritza akreditatzeko eskatuko da dokumentuak aurkeztean, ordezkari gisa, izapide hauek egiteko beste pertsona baten izenean:

a. Eskabideak egitea
b. Erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkeztea
c. Errekurtsoak jartzea
d. Akzioetan atzera egitea
e. Eskubideei uko egitea

Badira ordezkaritzarik (eta sinadurarik) behar ez duten izapide batzuk, hala nola, alegazioak, entzunaldia edo frogak aurkeztea. Legearen arabera, kudeaketa horiek guztiak edozein pertsonak egin ditzake interesdunaren izenean, ordezkaritza egiaztatu beharrik gabe.

2) Zer aurkeztu

Ordezkaritza egiaztatzeko, zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabili ahal izango da, haren existentzia modu fidagarrian jasota utziz gero. Ondorio horietarako, Administrazio honen onesten dituen agiri normalizatuak izango dira baliozkoak. Ondorio horietarako, egiaztatutzat joko da honako hauek aurkeztuta:

a) Pertsona fisikoak edo jarduteko gaitasunik ez dutenak ordezkatzeko:

- Baimena emateko inprimakia, eredu normalizatuan (apud akta). Kasu horretan, izapidea egitera bertaratzen

## ACREDITACIÓN DE LA REPRESENTACIÓN

1) Cuándo presentar

En cumplimiento del artículo 5 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las personas con capacidad de obrar podrán actuar en representación de otras ante las AAPP.

Se requerirá la acreditación de la representación en la presentación de documentos, en calidad de representante, para la realización de los siguientes trámites en nombre de otra persona:

a. Formular solicitudes
b. Presentar declaraciones responsables o comunicaciones
c. Interponer recursos
d. Desistir de acciones
e. Renunciar a derechos

Existe una serie de trámites que no requieren representación (ni firma) como los de alegaciones, audiencia, o la de presentación de pruebas. Conforme a la Ley, todas estas gestiones pueden realizarse por cualquier persona en nombre del interesado sin necesidad de acreditación de la representación.

2) Qué presentar

La representación podrá acreditarse mediante cualquier medio válido en Derecho que deje constancia fidedigna de su existencia, siendo válidos a estos efectos los documentos normalizados que apruebe este Administración. A estos efectos, se entenderá acreditada mediante la presentación de:

a) Para la representación de personas físicas o que carezcan de capacidad de obrar:

- Impreso, en modelo normalizado, para conceder la autorización (apud acta). En este caso la persona que

den pertsonak (interesdunak) bere burua identifikatu beharko du bere nortasun-agiria erakutsiz.
- Edo, notario-ahala
- Edo, ebazpen judiziala

b) Pertsona juridikoak ordezkatzeko:

- Legezko ordezkaritza egiaztatzen duten eskritura, estatutuak edo ahalordeak.

c) Jaraunspen jasogabeak, ondasun-erkidegoak edo nortasun juridikorik gabeko beste erakunde batzuk ordezkatzeko:

- Legezko ordezkaritza egiaztatzen duten eskritura, estatutuak edo ahalordeak

d) Jabe-erkidego bat ordezkatzeko:

- Erkidegoaren bileraren akta, lehendakaria eta, hala badagokio, administratzailea izendatu direla edo beste pertsona edo enpresa bati enkargua egin zaiola jasotzen duena.
- Aktan ez bada aipatzen administratzailearen izendapena edo beste pertsona/enpresa bati egindako enkargua, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira: presidenteak sinatutako ziurtagiria, administratzaileak edo pertsonak/enpresak komunitatearen izenean edo apud akta atorgamenduaren bidez kudeaketak egiteko izendapena duela egiaztatzen duena. Kasu horretan, izapidea egitera agertzen den pertsonak (lehendakaria) bere burua identifikatu beharko du, bere nortasun agiria erakutsiz.

e) Adingabeak ordezkatzeko:

- Familia-liburua (paperean edo formutu digitalean) edo jaiotza-agiria Erregistro Zibilean inskribatu izanaren

comparece presencialmente a realizar el trámite (interesado) deberá identificarse mostrando su Documento de Identidad
- O, Poder Notarial
- O, Resolución judicial

b) Para la representación de personas jurídicas:

- Escritura, estatutos o poderes donde se acredite la representación legal

c) Para la representación de herencias yacentes, comunidades de bienes u otras entidades sin personalidad jurídica:

- Escritura, estatutos o poderes donde se acredite la representación legal

d) Para la representación de una comunidad de propietarios:

- Acta de la reunión de la Comunidad en la que conste el nombramiento de Presidente/a y, en su caso, de Administrador/a, o encargo a otra persona/empresa.
- Si en el acta no se hiciera mención al nombramiento de administrador/a o encargo a otra persona/empresa, se deberá aportar, además: Certificado firmado por el Presidente/a que acredite que el/la Administrador/a, o la persona/empresa tiene designación para realizar gestiones en nombre de la comunidad o mediante atorgamiento apud acta. En este caso, la persona que comparece a realizar el trámite (presidente/a) deberá identificarse mostrando su Documento de Identidad

e) Para la representación de menores de edad:

- Libro de familia (en formato papel o digital) o certificado literal de la inscripción del Nacimiento en el

hitzez hitzeko ziurtagiria (jaiotza-agiria)
- Tutoretza, harrera, adopzioa eta antzeko kasuak edo bestelako ordezkaritza baliodunak egiaztatzen dituen agiria.
- Adingabearekin bizi ez den gurasoaren kasuan, gainera: guraso-ahala baliatzea esleitzen duen epai judiziala, edo gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak arautzen dituen hitzamena.
- Izapidea egitera agertzen den pertsonak (legezko ordezkaria) bere burua identifikatu beharko du, bere nortasun-agiria erakutsiz.

Registro Civil (partida de nacimiento)
- Documento acreditativo de los supuestos de tutela, acogida, adopción y similares u otros tipos de representaciones válidas
- En caso de progenitor no conviviente con la/el menor, además: Sentencia judicial que atribuya el ejercicio de la patria potestad, o convenio regulador de medidas paterno-filiales
- La persona que comparece a realizar el trámite (representante legal) deberá identificarse mostrando su Documento de Identidad

a), b), c) edo d) kasuetan, administrazio publiko eskudunaren ahalordetzeen erregistro elektronikoan edo haren ahalordetzeen erregistro partikularretan inskribatuta dagoela egiaztatuz ere justifika daiteke (203/2021 Errege Dekretua, 32. artikulua).

En cualquiera de los casos a), b), c) o d), también puede justificarse mediante la acreditación de su inscripción en el registro electrónico de apoderamientos de la Administración Pública competente o en sus registros particulares de apoderamientos (art. 32 Real Decreto 203/2021).

Apud akta ahalordetzearen bidezko egiaztapena sarrera erregistroaren bulegoetan aurrez aurre egin daiteke, edo ordezkaritza baimentzen duen pertsonak (ahalorde-emaileak) egoitza elektronikoan agerraldi elektronikoa eginez (203/2021 Errege Dekretua, 32. artikulua).

La acreditación mediante apoderamiento apud acta se puede realizar por comparecencia personal en las oficinas de registro de entrada o mediante comparecencia electrónica en la sede electrónica **por la persona que autoriza la representación (poderdante)** conforme al art. 32 Real Decreto 203/2021.

Era berean, ordezkariaren ziurtagiri elektroniko kualifikatu baten bidez edo notario-artxibo batean edo merkataritza-erregistro batean egindako inskripzio batean matrizea duen dokumentu publiko baten bidez egiaztatu ahal izango da. Pertsona juridikoaren izenean egindako jarduketen kasuan, ordezkaritza-gaitasuna ordezkariaren ziurtagiri elektroniko kualifikatuaren bidez ere egiaztatu ahal izango da; kasu horretan, ordezkaritza-ahalordeak edozein administrazio publikoren aurrean egindako edozein jarduketa barne hartzen duela ulertuko da (203/2021 Errege Dekretua, 32. artikulua).

Asimismo, se podrá acreditar mediante un certificado electrónico cualificado de representante o mediante documento público cuya matriz conste en un archivo notarial o de una inscripción practicada en un registro mercantil. En el caso de actuaciones en nombre de persona jurídica, la capacidad de representación podrá acreditarse también mediante certificado electrónico cualificado de representante, entendiéndose en tal caso que el poder de representación abarca cualquier actuación ante cualquier Administración Pública (art. 32 Real Decreto 203/2021).

## 3) Ordezkariaren ahalmena

Ordezkaria denak Lasarte-Oriako Udalaren Egoitza Elektronikoan jardun ahal izango du: Lasarte-Oriako Zerbitzu digitalak (gipuzkoa.eus), ordezkatutako persona edo erakundearen izenean. Horrela:

- Zure datuak, eskabideak, espedienteak, ordainagiriak eta abar kontsultatu ahal izango ditu.
- Edozein izapide edo eskaera egin ahal izango du bere izenean.
- Ordezkatutako pertsona edo erakundeari zuzendutako jakinarazpen elektronikoen berri emateko mezu elektronikoa jasoko du, eta haietara sartu ahal izango da.

Edozein aldaketa izanez gero, ordezkaritzaren egiaztagiria aurkeztu beharko da berriro.

## 3) Facultades del representante

Quien sea representante podrá actuar en la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Lasarte-Oria: Servicios digitales de Lasarte-Oria (gipuzkoa.eus) en nombre de la persona o entidad representada. De ese modo:

- Podrá consultar sus datos, solicitudes, expedientes, recibos, etc.
- Podrá realizar cualquier trámite o solicitud en su nombre.
- Recibirá un email de aviso de las notificaciones electrónicas destinadas a la persona o entidad representada, y podrá acceder a ellas.

En el caso de experimentar cualquier tipo de variación deberá presentarse de nuevo la acreditación de la representación.